


Jasangarritasun estrategia 2021-2027



Aurkibidea

Sarrera	4
Bere burua berrasmatzera ohituta dagoen hiri baten berrasmatzea	7
Inkesten emaitzak	10
Lan-mahaia Taskforce	14
Balio korporatiboak	17
Eginkizuna eta ikuspegia	18
Lerrokatzea	20
Garapen jasangarrirako helburuak	24
BiCB helburuak	26
Turismoaren adierazleak	28
I Eranskina	30
Esker ona	34

Dokumentu hau Bilbao Convention Bureauko lantalde osoaren lankidetzari esker prestatu da, eta lantalde osoak izan du haren berri. Horiek horrela, zuzendariak dokumentu hau onartzen eta sinatzen du.

Kepa Olabarrieta



Sarrera

Eskualde honetan gertatutako garapen indutrialak historial luzea eta ahalmen handia izan ditu. Praktika horiek indarra hartzen joan dira XX. mendeaz geroztik, eta aldaketak eragin dituzte, nahiz eta ez diren beti positiboak izan biodibertsitatearentzat, baliabide naturalentzat eta gizartearentzat.

Gizakiaren jarduketa eta jardueren ondorioz (batzuk planetarentzako kaltegarriak direnak) gaur-gaurko kontua dugu jasangarritasuna.

Bilbo inguratzen duen eremuari begirada bat ematen badiogu, ikusiko dugu gure ekosistemak ur ugari eta landarez betetako paisaia berdea dituela. Horiek horrela, abantaila Ihiakorra izateaz gain, erronka bat dugu aurrean gure ekintzak ingurunean integartzeko, baina ingurunea bera aldatu gabe.

Bilboko Udalak urteak daramatza aldaketa klimatikoa arintzeko eta hari egokitzeko lanetan murgilduta. Jarduketa horiei esker, efiziente goa den hiri bat eraikiko dugu, ingurumenariko atsegingarriagoa ere izango dena; azken batean, planeta honetan bizitzen uzten digun euskarria baita ingurumena, eta gure esku dago berau zaintzea.

Asko eta askotarikoak izan dira hartu ditugun neurriak, besteak beste: emisio gutxiko edo emisiorik gabeko garraioa eraldatzea eta sustatzea; energia-iturri berriztagarriak erabiltzea, berdeguneak eraiki eta mantentzea eta hondakinak kudeaketa egokia egitea, hondakinak murrizteko, berrerrabiltzeko, konpontzeko eta birziklatzeko asmoz.

Bilbao Convention Bureauk norabide horretan aurrera egiten jarraitzen du. Horretarako, esku artean duzun dokumentu hau prestatu dugu, zeinak ildo estrategikoak eta ezarritako norabidea jasotzen dituen, MICE sektoreari lotutako turismoaren eta ekitaldien arloan jardunbide jasangarriak lortzeko xedearekin.

Kontuan hartu beharra dago gure eginkizuna honako hau dela: **Bilbo mota eta formatu guztietako korporazio eta elkarte biler-egoitza gisa sustatzea**, antolatzaileen **aliatu estrategikoak** izanik eta antolatzaileek eskatzen dituzten **beharrizan geroz eta sofistikuagoak artatuz**, betiere **helmugako eta inguruneke jara garrantasun-interesak** alde batera utzi gabe.

Horrenbestez, gure jarduketetan funtsezkoak izango diren hainbat figura daude: ekitaldien antolatzaileak, ekitaldiek sustatutako turismoa, ekitaldien hornitzaileak, agintariak, helmugako ongizate-zerbitzuak, gure inguruko gizarteak eta, noski, **Bilbao Convention Bureau bera, lotura eta bideratzaile gisa jardungo dena.**

Dokumentu honek **tardean sartutako eragile guztiak** hartzen ditu kontuan, **sektorearen jasangarritasuna** zuzenean lotuta baitago alderdi horietako bakoitzarekin.



Bere burua berrasmatazera ohituta dagoen hiribaten berrasmatzeara

- **Birmoldaketaren kudeaketa** (*Efecto Guggenheim*)

Mundu osoan ezagutzen —eta aztertzen— den “Guggenheim efektua” esaten diogu euskal erakundeek industria-birmoldaketari eman zioten erantzun koordinatuari; izan ere, prozesu horrek gogor jo zuen Bilbo-Bizkaia 1980ko hamarkadan.

Titanioko museoaren irudi ikonikoaren inguruan eraikitako prozesu horri esker:

- Gure itsasadarrarekin adiskidetu gara eta gure ingurune naturala berreskuratu dugu.
- Berriro ezagutu eta aberastu dugu gure kultur ondarea.
- Sektore turistikoak eta haren jarduera osagarriek daukaten garrantzia indartu dugu.

- **Industria-birmoldaketatik 2008ko krisialdira**

Hiri osoa lanean jarri zuen bultzada horrek bi hamarkada baino gehiago iraun du, proiektuak gehituz eta garai guztietara egokituz, baina hiriak berezko dituen nortasun-ezaugarriak galdu gabe.

- Erakundeen arteko lankidetzaren eta lana sarean.
- Ingurumenaren berronartzea eta garapen jasangarria.
- Prestakuntzaren, ikerketaren, kulturaindustriaren eta zerbitzu-sektorearen aldeko apustua..
- Tokiko sare ekonomikoari laguntzea, baina nazioarteko bokazioarekin.
- Azpiegitura handiak egoiliarren eta bisitarien zerbitzura jartzea...

• **Hazkunde etengabea mundu gelditu zen arte**

Denborak aurrera egin ahala mantendu eta egokitu dugun formula bat da, eta horrek aukera eman zigun 2008ko krisialdiak eragindako kalteak minimizatzeke. Krisialdi horretatik irten ginenean sektore turi tikoak gero eta pisu handiagoa hartu zuen. MICE segmentua, bestalde, 2019an egonkortu zen.

Garai hartan, Bilbo-Bizkaia prest zegoen **2019-2025 aldirako marketin-turistikoko plan handinahi bat** aurkezteko, baina munduak beste plan batzuk zituen.

Dagoeneko urtebete baino gehiago igaro da lehenengo **#BilbaoAurrera** plana atera genuenetik, zeinaren asmoa turismoaren industrian, merkataritzan eta gizarte-ehunean izandako kalteak minimizatzea zen.

Gure ustez, garrantzitsua denari aurre egiteko garaia da, gure estrategia birpentsatzekoa, inoiz baino gehiago lehenetsiz:

- Inklusioa
- Osasuna
- Jasangarritasuna
- Segurtasuna

• **Aliatu berriak eta betiko lagunak**

Bilboren hurbileko historian bada lotura komun bat: gure hiriak daukan gaitasuna krisialdiei aurre egiteko, bere burua eraldatzeko eta ikuspegiak eta baloreak luzaroan mantentzeko.

Ez da lehenengo aldia eta ziur gaude azkena ere ez dela izango.

Oraingoan, aliatu berri baten laguntza izango dugu: GDS Movement (GDS-Index nazioarteko zerrenda antolatzen duena), bai eta prozesu honetan zehar (zati batean nahiz prozesu osoan) lagundu diguten betiko lagunak:

- Erakundeak
- Enpresa pribatuak
- Elkartek
- Unibertsitateak

• **Inplikaturako eragileei ahotsa ematea**

“Leave no one behind/Inor ere atzean ez uztea” helburuari eutsiz (Nazio Batuen Erakundearen goiburuetako bat eta GJHetan jaso dutena), ahalik eta eragile gehien bildu nahi izan ditugu Bilborentzat nahi dugun negozio-turismoaren eredia berriro pentsatzeko lanetan.

Lehenengo eta behin, parte hartzeko prozesu bat abiarazi genuen, herritarrek, industriak, elkartek eta Bilbao Convention Bureau-ko langileek zuten iritzia jakiteko. Gero, eskuratutako datuak alderatu genituen ondokoek emandako datuekin:

- Udaleko beste arlo batzuk (Bilbao Balioren Hiria).
- Auzokide-taldeekin harremanetan dauden elkartek (Urban Bat).
- Erakunde publikoak (BBAG/BM-30).

• **#BilbaoArimaBerdea mugimendua**

Lortutako informazio hori guztia mahai gainean jarri genuen **#BilbaoArimaBerdea**-ren lansaioetan. Bertan, diziplina anitzeko lantalde batek (industriako, elkarreetako, unibertsitateetako eta enpresa pribatuetako ordezkariak osatutakoa) gure helmugako AMIA analisi bat adostu, sektorean pisu gehien duten GJHak aztertu eta hobekuntza-neurri batzuk adostu zituen.

Proiektuak luzaroan irauteko asmoarekin, **#BilbaoArimaBerdea** lantaldeak bilerak egiten jarraituko du, prozesuari jarraipena emateko, esperientziak partekatzeke, helburuak berrikusteko eta guztiok batera aurrera egiten jarraitzeko.

Inkesten emaitzak

Estrategiaren baitan, tartean sartutako taldeei inkestak egingo zaizkie, haien iritzia ere barne hartzeko.

Haien kezkek desagerraraziz aurrera egitea da helburua, baita jardueraren gauzate-maila eta emaitzak ikuspuntu guztietatik hobetzea ere.

• Industria

Enpresen % 48ak inkesta erantzun du. Adierazi dute jasagarritasuna garrantzitsua dela sektorearentzat (9,5/10), aldaketari aurre egiteko prest daudela (9/10), baina gaur egun gutxi direla jasagarritasunaren integrazioan lan egiten hasi direnak (6/10).

• *Gizarte arlan*

Jasagarritasunaren eta gizarte-inklusioaren inguruan gizartea sentsibilizatzea eta hezte.

• *Ingurumen arloan*

Hondakinen kudeaketa/ekonomia zirkularra (elikadura barne hartzen du) eta Natura, biodibertsitatea eta garraioa.

• *Arlo ekonomikoan*

Berrikuntza eta teknologia eta Kalitatea kate osoan zehar.

Hauek dira industriak gehien errepikatzen dituen GJHak:



• BiCB-EKO langileak

BiCBeko langileen % 100ak inkesta erantzun du. Horien ustez, jardueraren gizarte- eta ingurumeneraginak hobetzeko lan egin beharra dago.

• *Gizarte arloan*

Sentsibilizazioa eta hezkuntza, parte hartze soziala eta inklusioa.

• *Ingurumen arloan*

Hondakinen kudeaketa/ ekonomia zirkularra, natura eta biodibertsitatea, eta karbono-emisioak.

• *Arlo ekonomikoan*

Berrikuntza eta teknologia, enplegua sortzea eta kalitatea.

Hauek dira industriak gehien errepikatzen dituen GJHak:



- **Bezeroak**

Bezeroen % 35ak inkesta erantzun du. Uste dute Covid-19aren ostean, jasagarritasunak ikusgaitasun handiagoa izan behar duela. Ildo horretatik, inkesta erantzun duten bezeroen % 62ak dagoeneko ingurumen eta/edo gizarte arloko praktikak gauzatzen ditu bere ohiko jardueraren baitan. Horrez gain, % 80ak hornidura-katearen jarraipena egiten du. Azkenik, Bilbok daukan komunikazio-sarea azpimarratu dute, baita jarduera antolatzen den den lekutik hurbil ostatu hartzeko aukera ere. Laburbilduz, beren jarduerari eta GJHetan duten garrantziari dagokiernez, honako hauek gailentzen dira:



- **Herritarrak**

Bilbao Bizkaiaren bidez 607 herritarrek osatutako lagin batek inkestari erantzun dio. Herritarrek MICE ekitaldiekiko agertu duten batez besteko gogobetetze-maila 8,37/10 da, nazioarteko proiektzioa duten ekitaldiena 8,13/10 eta interes turistikoko lurralde-ekitaldiena 8,66/10. % 98ak 5/10-etik gorako nota eman dio ekitaldiak egoteari.

Helmugako tokiko ekonomian, irudian eta prestigioan eta turismoaren sustapenean antzematen da eragina eta inpaktua. Alderdi negatibogisa, desadostasuna sumatu da hiriko bizitza dinamizatzeko balio izatearen ideiarekin (% 6,9) eta tokiko lanpostuak sortzeko balio izatearekin (% 11,9).

Gehiengo osoak modu positiboan baloratzen ditu ekitaldiak, betiere dimentsioak zaintzen badira eta jarduerak kontrolatzen badira, tokiko kolektiboaren asegabetasuna saihesteko.



Lan-mahaia Taskforce

Gure kooperazio- eta lan-mahaia talde anitz batek osatzen du: azpisektore guztietako ordezkariak parte hartzen dute bertan, eta kolektibo oso bati ahotsa eta ikuspegia ematen saiatzen da.

Hori dela eta, lehenengo eta behin, **gutako bakoitza nor den identifikatu genuen eta bakoitzaren indarguneak markatu genituen.**

Lan aberasgarri horri esker, jasagarritasunean aurrera egiteko hartutako konpromisoak identifikatu genituen. Arrakastatsua izan zen taldearekin batzea, partaideek dedikazio eta esperientzia handia baitute.

Hona hemen gailendutako gaitasunetako batzuk:

Ziurtagiriak, politikak, jateko jasagarriak, karbono aztarnaren murrizketa, ekonomia zirkularra, plastikoeza, hornitzaile lerrotuak eta jasagarriak, gizarteinklusioa, talentuen garapena, materialen dohaintza, tokiko ekonomia lehenestea, lankidetzak publikopribatua, berrikuntza soziala...

AMIA ere jarduera garrantzitsua da, eta ingurunearen ikuspegi orokorra izateko balio du. Autokritika eginez gero, bi puntu nabarmentzen dira: alde batetik, Bilbo ez da oso helmuga ezaguna nazioartean eta, bestetik, eskaintza oso kontzentratuta dago hiriaren erdigunean.

Hala ere, indargune hauek ditu: eraldatzeko gaitasun handia, garraio-sistema bikaina eta hirigunetik 15 minutura egotea, gastronomia eta kultura.

#BilbaoArimaBerdea mugimenduaren baitan egindako lan-saioak funtsezkoak izan dira estrategiari ekin genionetik.

Lankidetzak gidatu du datozen urteetarako zehaztu den ekintza-plana; gainera, helburu bera lortzeko asmoa duen talde baten sentimendua biziagotzen du: MICE negozio-turismoaren jasagarritasuna.



Balio korporatiboak

Bilbao Convention Bureauren balio korporatiboek Bilbao Ekintzak ezarritako balioak barne hartzen dituzte. Bilbao Ekintza egitura horren barruan sartzen da, Bilboko Udalaren sozietate publikoa da, eta Bilboko herritarrentzako gertu, eskuragai eta konprometitu aritzen da.

Jarrera proaktibo eta dinamikoak ditu, iritziak kontuan hartuz eta tokiko beharrei erantzunez; horregatik, malgua eta erresilientea da aldaketetara arrakastaz egokitzeko.

Gizartearen premiei erantzutea da eginkizun nagusia, eta horretarako jarrera barneratzailea, solidarioa eta kohesionatzailea du. Gainera, baliabideak optimizatzeko beharrezana ezagutuz lan egiten da, eta horiek modu eraginkorrean kudeatzen dira. Erakundeak asmo handiko alderdi pragmatikoa erakusten du, ageriko emaitzak lortzeko esku artean dituen proiektuetan sakonduz.

Azkenik, erakundeak gardentasun politika bat du, fidagarritasuna erakutsiz eta guztiontzako onak diren emaitzak bilatuz. Jarduera horiek berrikuntza muinetik gehituz eramaten dira aurrera.

Proiektuari begira eta #BilbaoArimaBerdea lan-mahaietan parte hartzen duten eragileekin batera (auzotarren elkarteekin harremanetan dauden taldeak, helmugako turismo-industriaren azpi-sektoreetako ordezkariak, inklusioaren aldeko elkarteak, ekonomia zirkularrerako eta ingurumena zaintzeko elkarteak eta abar) honako balio hauek definitu dira:

Bizi kalitatea

Inklusioa

Lankidetzeta

Aurrerabidea

Eginkizuna eta ikuspegia

• Eginkizuna

Batzar, eztabaida eta talde-laneko prozesu baten ondoren, mahai gainean jarri diren gaiekin eta egindako inkestetatik eskuratutako datu kin sektoreari buruzko ondorioak atera dira. Parte-hartzaileen kezka izango dira datozen urteetan landuko diren gaiak, guztiak ere jasangarritasunaren aldekoak.

Horien artean:

- Ekonomia zirkularreko sistemak ezartzea.
- Aztarna ekologiko txikiagoa duten materialak erabiltzea.
- Lanpostuak birmoldatzea, gizarte-inklusioa errazteko.
- Kultura eta identitatea ikusaraztea eta indartzea helmugan.
- Ingurumena jomugan jartzea eta horren inguruan sentsibilizatzea.
- Jasangarritasunari buruzko gaien inguruan prestatzea eta ikasitakoa ezartzea.

Bilbo mota eta formatu guztietako enpresa eta elkarteetako bileren egoitza gisa sustatzeko eta antolatzaileentzako aliatu estrategikoa izateko integratuko dira gai horiek, eskatzen diren eta gero eta sofistikutuagoak diren premiei erantzuteko, betiere helmugako eta inguruko jasangarritasunari lotutako interesak alde batera utzi gabe.

Laburbilduz, Bilbao Convention Bureau lanean ari da helmugaren irudia hobetzeko, hiria enpresen egoitza bilakatzeko eta munduan ospe ona lortzeko. Horrek guztiak berekin dakar industriaren, tokiko ekonomiaren eta lurraldeko printzipioen beharrekin bat datozen ekitaldiak erakartzea.

Behin egoitza finkatuta, alderdien arteko lotura eta bultzatzaile gisa aritzen da Convention Bureau, aholkuak emanez eta eskatzen diren irizpideak hobeto betetzen dituzten erakundeetara bideratuz interesdunak.

Azkenik, jarduketek izan duten inpaktua aztertzen da, alderdi kaltegarriak hobetzeko lan egiten da eta jardunbide egokiak hartzen dira arrakasta lortzeko gakotzat.

• Ikuspegia

Kaleetako eta establezimenduetako garbitasunagatik nabarmentzen den helmuga dugu Bilbo. Aireak kalitate bikaina du, eta naturaren freskotasuna hauteman daiteke hiriaren erdigunean; horrek, zerbitzu aurreratuekin batera, bizi-kalitate ona ematen die bai herritarrei baita bisitariei ere.

Gizarteak ondo errotutako kultura eta balioak ditu: errespetua, berrikuntza (batez ere, industrian eta teknologian), tolerantzia eta gizarteinklusioko sentsazio orokorra, zeina jarduera turistikoan hainbat urtez landu izan den, oso ezaguna den ondarea ahalbidetuz.

Lerrokatzea

Aipatu bezala, **Bilbok asmo aktiboa du sektore guztietan jasangarritasunaren arloa garatzeko**, eta hori lehenago ere landu izan da. Gainera, Udalak GJHak integratu ditu bere ildo estrategikoe-tan, Bilbao Convention Bureauk bezala, eta horrek esperientzia ematen dio helmugari. Udalaren erakundea izanik, Bilbao Con-vention Bureauaren helburu guztiak bat datoz udaleko Agintal-diko Planarekin, BiCBko Jasangarritasunerako Ekintza Planean adierazten den bezala.

Bestalde, ICCA (International Congress and Conventions Associa-tion) elkarteko kide da Bilbao Convention Bureau. Elkarte horrek jasangarritasuna ekitaldietarako oinarri gisa lantzen du, hainbat programaren bidez. Are gehiago: eragileak eta DMO delakoak harremanetan jartzen ditu, jasangarritasunpolitikak eta -joerak bateratu ditzaten. Gaur egun, gainera, ekitaldien kudeaketari buruzko prestakuntza ere eskaintzen du.

Era berean, European Cities Marketing (ECM) taldearen par-te gara. Talde horrek hiriko alderdi espezifikoetara eta hiriko turismoaren garapenera bideratutako lantaldeak ditu, zeinek jardunbide egokiak partekatzen dituzten, gaiak eztabaidatzen dituzten eta jardueri ekiten dieten ECM knowledge groups tal-dearen bidez. Horrez gain, loturak ditugu Meeting Professionals International (MPI) elkartearekin ere, biltzarren eta ekitaldien industriako munduko elkarerik handiena.

Erakunde horrek, erkidegoko komunikazio globala aintzat hart-zen du eta honako hauek eskaintzen ditu: heziketa, berrikuntza, sektoreari aldaketak eta aukerak ematen dizkion sarea eta indus-triaren sustapen eta hazkunderako ekintzak. Hori guztia, pertso-nak erdian kokatuz eta sektorea indartuz, jardunbide egokiekin eta zintzotasunaren balioekin.

Bilbao Convention Bureau elkartearen azken berrikuntza izan da GDS Movement (Global Destination Sustainability Movement) erakundeak egiten duen helmuga jasangarrien GDS-Index ran-kingean sartzea. Helburu horrek nazioartean helmuga jasangarri gisa kokatzeko aukera ematen du.





Garapen jasagarri- rako helburuak

Jasangarritasunerako bidea erakusten digun bide-orratzaren osagarri dira GJHak, eta gure filosofian integratzen ditugu jardueraren erdi-erdian egon daitezten. Helmugako azpisektore guztiei eta industriaren parte ez diren inplikaturako taldeei kontsultatu ostean burutu da egintza hori, baita gure pertzepzio propioa kontuan hartuta ere. Bilboko negozio-turismoa honako GIH hauetan zentratu dela identifikatu da, jarduera gauzatzearen ondorioz:

- **Kalitatezko hezkuntza**



Lan egoki bat egiteko beharrezkoak diren gaitasunak dituzten gazteak eta helduak lortzea. Ezagutza teorikoak barneratzea eta garapen jasangarria sustatzeko horiek ezartzea.

- **Lan egokia eta ekonomia suspertzea**



Lanpostu berriak eta lan egokia garatzera bideratutako politikak sustatzea. Baliabideen kontsumo eraginkorra hobetzea. Tokiko kultura eta produktuak sustatzen dituen turismo jasangarria bultzatzea.

- **Industria, berrikuntza eta azpiegiturak**



Industria inklusiboa eta jasangarria sustatzea. Enpresa txikietarako sarbidea handitzea, tokiko merkataritza bultzatzeko. Azpiegiturak modernizatzea, jasangarriak izan daitezten.

- **Hiri eta erkidego jasangarriak**



Errekurtsoak kultura eta natura ondarea babestera eta zaintzera bideratzea. Ingurumen inpaktu negatiboa murriztea, udal-hondakinen kudeaketa hobetuz. Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-loturak bultzatzea.

- **Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak**



Baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra lortzea. Elikagaien hondakinak murriztea. Hondakinen kudeaketa ekologikoa lortzea, albo-ondorioak murrizteko.

- **Helburuak lortzeko loturak sortzea**



Sektoreko egonkortasuna areagotzea, garapen jasangarria lortzeko, politikak eta horien koherentzia koordinatuz. Inklusiorako eta garapen jasangarriko gizarte-politikak gehitzea.

Bicb helburuak

Crowdthinking prozesu horren bidez, eta AMIA analisi komun batetik abiatua, **#BilbaoArimaBerdea** mugimenduaren baitan ekintza-plan honetan jorratuko diren etorkizuneko helburuak garatu dira. Erakunde bakoitzak bere ezagutzekin argitu du bidea; horrela, errazagoa izan da benetan jorratu beharreko erronkak zehaztea.

- **#1 Konpromisoa eta jasangarritasuna ikusaraztea**

Balioak: lankidetzeta eta aurrerabidea

Sektoreko eragileengana iristea eta industrian inplikaturako eragileen gutxienez % 70aren berri ematea 2022aren amaierarako.

- GDS-Index.
- **#BilbaoArimaBerdea** lantaldea
- Hurbileko harremana enpresekin (kezkak, prestakuntza eta indarguneak).
- Kontsultak egitea stakeholderei eta, bereziki, herritarrei.

- **#2 MICE sektoreko enpresentzako jasangarritasun-ziurtagiriak eta -politikak areagotzea helmugan.**

Balioak: lankidetzeta eta aurrerabidea

- Jasangarritasun-politika egokiak eskuratzeko prestakuntza praktikoa.
- Jasangarritasun-ziurtagiriak eskuratzeko laguntzak.

- **#3 Elikadura jasangarriak duen garrantziaren inguruan kontzientziatzea eta ideia hori hedatzea, gastronomia-maila handiko eskualdea izanik gurea.**

Balioak: lankidetzeta, aurrerabidea eta bizikalitatea

Janari jasangarria: janari organikoa, ekologikoa, zero kilometrokoa, landareetan oinarritutakoa eta alegenoen zehaztapena.

- Aztarna ekologiko txikia uzten duten elikagai jasangarriak.
- Elikadura jasangarriari buruzko prestakuntzak.

- **#4 Materialen eta elikagaien soberakinak kudeatzeko ekonomia zirkularreko sistemen zabalkundea, prestakuntza eta ezarpena.**

Balioak: lankidetzeta, aurrerabidea eta bizi-kalitatea

- Materiala jasangarriari buruzko prestakuntzak.
- Materialen ekonomia zirkularreko sistemak lantzea.
- Soberan dauden elikagaiak dohaintzan emateko sistema bat sustatzea.
- Elikadura-hondakinen konpostatze-sistema sustatzea.

- **#5 Ekitaldien jarduerekin legatu eta/edo inpaktua soziala sortzea.**

Balioak: inklusioa, lankidetzeta, aurrerabidea eta bizi-kalitatea

- GKE-ekin, elkarteekin eta beste batzuekin batera sareak sortu eta sistematizatzea, gizartean eragin positiboa sortzeko.

Adierazleak

Jarraian jasotako helburuak kontrolatzeko jarraipen-sistema periodiko bat dugu, eta berrikuspenak urtean bi aldiz egiten dira.

Berrikuspen horien bidez, proposatutako mugarren betearazpena eguneratuko da eta xedeak lortzeko bidean gertatutako desbideratzeak zuzenduko.

Bilera horiek, era berean, Bilbao Convention Bureauko lantaldeko kideak gaitzeko balioko dute, eta, horrela, langile guztiek izango dute DMOren jardunbide jasagarrien berri.

Bestalde, emaitzak **#BilbaoArimaBerdea** mugimenduko lantaldearekin partekatuko dira, haien iritzia eta ekarpenak ezagutzeko, oso garrantzitsuak baitira ikaskuntza kolektiboko prozesuan.

Lortutako datuak web-orrian argitaratutako adierazle hauetan laburbilduko dira, neurketaeta kontrol-sistema sinplifikatu gisa, honako dashboard honen bidez:



Azkenik, txostenak egiteko eta strategiaren mugarrak zehatz-mehatz neurtzeko jarraitu beharreko adierazleak kontrolatzeko, inkestak egingo dira ekitaldietan, kontaktuak eta lankidetzaz ezarriko dira elkartutako enpresekin eta helburu bakoitzerako adierazleak zehaztuko dira, besteak beste:

- Jarraipena eta gaikuntza egiten zaien industriako eragileen ehunekoa.
- Industriako eragileen arteko jasagarritasun-politiken eta -ziurtagirien gorakadak izan duen ehunekoa.
- Jakintzaren zabalkundearen ehunekoa eta elikadura jasagarriko ekintza horiek duten baliozkotasuna.
- Konpostaje-sisteman parte hartzen duten bazkideen ehunekoa (hotelak, jatetxeak eta catering-enpresak).
- Gizarte-eragin positiboa sortzen duten urteko ekitaldien ehunekoa.

I Eranzkina

BiCB 2024 KPIak

eguneratzea

- **Estrategia 2021-2027**

Azken 3 urteetan gure bazkideei eta ekosistemari egindako inkestei esker ikusitako proiektu eta erantzunen eguneratzeen ildotik, Bilbao Convention Bureau-tik monitorizatzen ari garen bi bloketan oinarritutako adierazle berriak sartu ditugu.

Estrategia honetan dauden adierazleak neurtzen jarraitzen dugu (saihestutako CO2 isuriak, lagundutako pertsonak eta saihestutako kg hondakinak), baina ondorioztatzen dugu jarraian aurkeztu diren adierazleak hobeto egokitzen direla gure jardueraren egungo errealitatera eta egiten ari garen proiektuetara.

- **Ingurumen KPIak**

- *FAMTrips eta bulegoaren karbono-aztarnaren neurketa*

Urtero neurtuko da bulegoaren karbono-aztarna, eta horri buruzko txosten bat egingo da. Kalkulu horren helburua da gure aztarna monitorizatzea eta Bilbao Convention Bureauk bere jardueran sortutako ingurumen-inpaktua konpentsatzea.

Bilbao Convention Bureau-k antolatutako FAMTrip-ak neurtzen dira, eta aztarna hori gero konpentsatuko da, parte-hartzaileen garraioaren eta egonaldiaren eragina kalkulatzuz.

- *Biltzarren antolatzaileen iraunkortasuna*

Biltzarren antolatzaileek iraunkortasunari buruz duten iritzia monitorizatzen da, eta bilera-egoitzetan, zerbitzu-hornitzailetan eta Bilbon helmuga gisa duten pertzepzioa zehazten da.

Era berean, kongresuen antolatzaileek MICE segmentuaren baliokatean iraunkortasun-ziurtagiriek edo -politikek duten garrantziari buruz duten iritzia ebaluatzen da.

- **KPI sozialak**

- *Irisgarritasuna kongresuetako parte-hartzaileen arabera*

Urtero neurtzen da kongresuetako partaideek Bilbon egindako kongresuan irisgarritasunaren inguruan hauteman duten konpromisoari buruz duten iritzia.

- *Berdintasuna, inklusioa eta eragin positiboa biltzarren antolatzaileentzat*

BiCBk monitorizatu egiten du kongresuen antolatzaileek desgaitasunen bat duten pertsonen eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen kontratazioa.

- *Eragin positiboko ekintzak*

Azkenik, jarduera arduratsuak (sozialki, kulturalki edo ingurumenaren aldetik) egin dituzten biltzarren antolatzaileak kuantifikatzen dira.



Esker ona

Eragile guztien parte-hartzea eskertzen dugu, industriakoak nahiz helmugakoak izan.

Horien artean daude biltzarren antolatzaile profesionalen agentziak eta agentzia hartzaileak, hotelak, jatetxeak eta catering-enpresak, esparruak, Udala, unibertsitatea, aireportua, hondakin- eta ingurumen-elkarteak, elikadura jasangarriaren aldeko elkarteak eta herritarren partaidetzarako, enpresen sustapenerako eta turismoaren promoziorako gizarte- eta kultura-fundazioak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu GDS Movement mugimenduari, berregituraketaprosesu honetan egindako lanagatik.

Jarraipena egiteko asmoz, prozesuan inplikaturako eragileei nahiz prozesuarekin bat egiten duen enpresa edo erakunde laguntzaile berriei kontsulta egingo zaie berriro.

Horregatik, etorkizuneko konpromisoak eta lankidetzak eskertzen ditugu.



<https://bilbaoconventionbureau.bilbao.eus/>



bicb@bilbaoturismo.bilbao.eus



+34 944 79 57 70



Bilbao Convention Bureau